

consonni

Montserrat Roig

Gerezi-denbora

ITZULPENA

Amaia Apalauza Olo

HITZAURREA

Lara Moreno





Hitzaurrea

Lara Moreno

Montserratren begirada fidagarria

«Oso zaila zen Bartzelonan amodioa egitea». Hala hasten da *Gerezi-denbora* eleberri ederreko kapituluetakoa bat. Hortik aurrera, kontatzen du nola txistukatzen zuen Emiliok, komunistak, almeriar guapoak, abesti hura, J. B. Clément Parisko Komunako poetak idatzia eta Antoine Renardek musikatua, «Le Temps des Cerises», grisek giltzapetua zuten ziega batetik, eta nola entzuten zuen Natàlia Miralpeixek, beste ziega batean giltzapeturik. Oso zaila zen Bartzelonan amodioa egitea, bai bederen Natàliak egin nahi zuen eran, lasaitasunez, berari eta beraren maitaleari gogoak ematen zienean, ezkaratz batean sartu beharrik gabe eta gela bat orduka alokatu beharrik gabe, baina ez zegoen beste erremediorik; oso zaila zen Bartzelonan amodioa egitea, garai hartan, baita Espainiako beste hiri batzuetan ere, eta zaila zen Natàlia eta Emiliorentzat, baina, egia esan, oso zaila zen amodioa egitea

edonorentzat, baita liburu honetako gainerako pertsonaientzat ere, pertsonaien eta haien belaunaldien familia oso batentzat, egiaz oso zaila zen amodioa egitea, askatasunez eta alaitasunez eta adostasun osoz, oso zaila logistikaz harago, oso zaila heziketa triste eta ilunagatik, erlijio murriztaile baten salda zaharragatik, errepresioagatik, hipokrisiagatik, diktaduragatik, gorputzen eta desiren gaineko kontrolagatik, horregatik guztiagatik zen oso zaila, hain zuzen, amodioa egitea Bartzelonan, eta zaila zen orobat Espainia osoan. Eta horretaz ari da Montserrat Roig Eixampleko trilogiako bigarren liburu honetan. Zeinen zaila eta arriskutsua izan den herrialde honetan aske izatea, amodioa egitea eta, jakina, abortatzea.

Duela urte batzuk, nik ez nekien nor zen Montserrat Roig –orain, pentsaezina iruditzen zait-, baina ikaragarritzko zortea izan nuen, azoka batetik berreskuratuta eskuratu bainuen *Gerezi-denboraren* 1980ko argitalpen bat, gaztelaniaz, Enrique Sordok itzulia. Kontrazalean, prezioaz gainera -175 pezeta-, zehazten zen Franco hil eta hilabete gutxi batzuetara idatzia zela eleberria, eta Rosa Monteroren hitzek ematen zuten horren bermea: «Eleberri inbidiagarria da, eta inbidiagarria diot neuk idatzi nahi izanen nuelako». Beraz, Natàlia Miralpeixen etxerako itzuleran barneratu nintzen, harriturik, batik bat ezezaguna zitzaidalako egile hura eta berehala liluratuta geratu nintzelako haren begirada zorrotz, ikaragarri eta zoliarekin, halaxe begiratzen baitzion Roigek Salvador Puig Antich garrotez exekutatu berria zuen herrialdeko gizarte ahitu eta ia arraildu hari.

Bartzelonako eleberriak, denak ere egile katalan zoragarriek idatziak, genero bat dira bere horretan, eta halako debozio batez miretsi izan ditut nire bizitzan zehar. Bat-batean, Bartzelonako eleberri baten erdi-erdian nengoen berriz ere, horrek esan nahi zuen guztiarekin: pertsonaia batzuen gainbeherari beha nengoen, beren geruza ankerrak eranzten nizkien gordintasunera eta samurtasunera iritsi arte, jada dena gertatua zen hiri bateko karriketari barna

paseatu nintzen. Aurrera egiten nuen heinean, gero eta txundituago nengoan. Nor zen emakume hura? Zergatik ez nuen berari buruz deus jakin ordura arte? Zer zulo beltzek -Kataluniatik kanpoko zer zulo beltzek- irentsi zuen halako idazle buruargi bat, hain sakona eta hain zorrotza, hain oraingoa, hain feminista, hain behar-beharrezkoa? Izan ere, idazlea, kazetaria, eta feminismoaren eta eskubide sozialen aldeko aktibista izan zen Roig, eta, horrez gain, arrakasta handia bildu zuen. Intelektual eta kronista bikaina, historialari ausart, zaildu eta erudituenari deus zor ez diona, esate baterako *Els catalans als camps nazis* liburuan ikusten den bezala: Serra d'Or Kritika Saria irabazi zuen 1978an liburu hari esker. Argi eta garbi, izugarri handia eta samingarria da gure herrialdeak gauza garrantzitsuak ahazteko duen gaitasuna. Ez dut hemen kontatuko nolako malkarrak ibili behar izan nituen Roigen gainerako liburuak gaztelaniaz aurkitzeko, katalogoz kanpo baitzeuden denak. Gauza bakar bat esanen dut: eskerrik asko, consonni, ezinbesteko ondare hau berriz ekartzeagatik.

Gerezi-denbora 1976an argitaratu zen katalanez, eta eleberrien saileko Sant Jordi saria eman zioten. Bartzelonako trilogiako bigarren liburua izan zen, *Ramona, adeuren* ondotik. Bada, *Gerezi-denboran*, Miralpeix familia oso-osorik jaikiarazten du Roigek, diktadura murriztaile batetik iratzartzen ari den hiri batean, haren taupadak dekadentzian entzuten diren bitartean. Protagonista, Natàlia, Bartzelonara itzuli da zenbait urtez atzerrian bizi eta gero, Frantzia eta Ingalaterran, eta haren urratsen eta ihes egin nahi izan zuen familiaren atzetik ibiliko gara eleberrian zehar. Formari erreparatuz, hiru liburuetan tradizionalena da hau, eta istorioaren hari narratiboak iraganera eramaten gaitu noizean behin, pertsonaia bakoitzaren bizitzako egoerak jasoz, baina narratzailea orojakilea da eleberri guztian zehar -elkarrizketa eta zuzeneko ahots ugari lagun-, *Ramona, adeuko* barne-ahots egarbera hura gabe. Eta, hala eta guztiz ere, eleberri guztiz espermental eta berritzailea da maila

organikoan, baita gaiari dagokionez ere. Eta argazkiari dagokionez. Begiradari dagokionez. Izan ere, Montserrat Roigen begirada da haren tresnarik baliotsuena.

Eleberriko pertsonaia bakar bat ere ez da geratzen biluztu gabe. Bakar bat ere ez da geratzen bere heroi-bidaiarik gabe, bidaiarik interesgarriena egin gabe: ez epikarena, baizik eta dramatikoa, sakontasunarena, bere egiazko errealitatean hondoratzen gaituena –errealitatea beti baitago ezkutuan, beti baita ustekabekoa, bizitza bera bezala bizitza bizi dugunean-. Azkenean, gai gara debozioa sentitzeko, edo errukia ote da? Enpatia da, besterik gabe.

Itzulera baten istorioa da eleberri hau, eta, beraz, begirada berri baten istorioa. Begirada bat gizarte baterantz, hiri baterantz, herrialde baterantz. Familia baten barrenerantz –eta haren emakume eta gizonen barrenerantz-. Begirada fidagarri, zorrotz eta oinazetu bat: benetan balio duten begiradak. Roig datorkit gogora Annie Ernauxen hitz hauek irakurtzen ditudalarik: «Klase sozialen funtzionamenduaren gaineko kontzientzia hartzeak [...] goitik behera aldatu zidan desira: ez nuen oroz gain egin nahi zerbait ederra, baizik eta zerbait erreala, eta idazketa zen errealitatea eguneratzeko lan hori». Montserratek, ordurako, esperientziaren kronika gisa ulertzen zuen literatura; bazekien pribatuari kritikotasunez behatuta iritsiko zela kolektiboaren analisi zuhur batera, eta sendotua zuen literaturarekin zein bere ideiekin zeukan konpromisoa. Horregatik da funtsezkoa eleberri hau: izan garenaren –eta zentzu askotan oraindik ere izaten segitzen dugunaren– funtsezko argazki bat egiten duelako. Horregatik da hain berritzailea: muineraino iristeko gai delako. Ausarta delako.

Gaur egun *Gerezi-denbora* irakurtzean sentitzen dugun gozamenen bada zerbait tristea eta iluna: zergatik ez ote genuen Roig lehenago ezagutu. Horra zor historikoa. Horra iluntasun behartuak eragiten duen zauria. Ezinbesteko erreferente bat izan behar zuen Montserratek azken hogeita hamar urteotan, ez bakarrik bere

balio literarioagatik, baizik eta baita bere intelektueltasunagatik eta feminismoagatik. Politikoki behar genuen: une hartan, baina baita gerora ere, denbora guztian. Eta gaur egun ere behar dugu, hotzikara ematen duen arren. Gaur egun. Oraindik ere behar dugu Montserrat. Hainbeste galdera erantzuteko, hainbeste aho isilarazteko, batzuek oraindik ere izendatu nahi ez dituzten muga horiek -gizakiarenak eta gizartearenak- halako sotiltasun fresko, erne eta burutsuaz jasotzeko.


Haurdunaldien ondotik zartaturiko haragiaren arrangura, sexu-askatasuna, heterozuzenaren aurreko gozakaizkeria, errepre-sioan oinarrituriko kultura baten ondorio toxikoak, diktaduraren arrasto krudela, doilorkeriatik eta samintasunetik salbu egoteko pentsamendu kritiko baten gabezia, desira sakon bat zoriontsu izateko, ihes egiteko, betetasunez bizitzeko, edertasunez bizitze-ko. *Gerezi-denbora*.

«Gerezi-denbora iristen delarik / urretxindor alegerak eta zozo burlatiak festa eginen dute / emakume ederrek zorotasuna izanen dute buruan / eta maiteminduek eguzkia beren bihotzean».


Irakur dezagun, denok, emakumeok, gizonok, irakur dezagun, haren memoriagatik, gureagatik, ospa dezagun berreskuratze bi-dezko eta apropos hau, mintza gaitezen berarekin eta beraren per-sonaiekin, ibil gaitezen hiri honetan premiaz, begiratu diezaigogun berak begiratu zionari: izan ere, hemen barrenean begiratzen ariko gara, sakon-sakonean, oraindik, orain, baita bihar ere.

Hona hemen Montserrat Roigek berak *L' hora violeta*ren jatorrizko ediziorako (Edicions 62, 1980) prestatu zuen zuhaitz genealogiko zoragarria. Hona ekarri nahi izan dugu irakurketan sakondu eta, hartara, liburu honetako eta *Ramona, adeu* eta *L' hora violeta* eleberrietako bi familia protagonistak ezagutzeko. Espero dugu literaturaren maistra-lan honekin gozatzea. (Argitaletxearen oharra)

MIRALPEIX FAMILIA



VENTURA CLARET FAMILIA



LEHEN ATALA

Osin-zuloak

Denbora galdua. Denbora galdua. Denbora galdua.
Sakontasun handiagoetan hitz berberak errepikatzea
nork bere burua biluztea da menturaz,
beste aldeko bidea aurkitzeko.

Osin-zuloak.

–Joan Vinyoli, «Gorgs» [Osin-zuloak]

Bartzelonara itzuli zelarik, Natàliak nahiago izan zuen izeba Patriàciaren etxera joan, Gran Viara, Brucen ondo-ondoan. Haren anaia Lluís, zeinak hemezortzi urte baitzeramatzan Sílvia Claretekin ezkondata, hiriaren goiko aldean bizi zen, Calvet karrikako duplex batean, Via Augustatik hurbil. Anaiaren etxera ez zuen joan nahi, ordea, ez Sílviagatik -zeren Sílviak, bederen, sukaldaritza maite baitzuen, berak bezala-, baizik eta Lluísengatik. Natàliak, hamabi urteko urrunaldian gauza asko ahantzi bazituen ere, ezin zuen oroi-menetik ezabatu nolako irribarre isekaria zeukan Lluísek klinikara bere autoan korrika eta presaka eramane behar izan zuen egunean. Septizemia bat harrapatzeko zorian egon zen Natàlia, larrutan egin nahi badun, egin ezan, baina pentsatu gauzak alde aurretik eta erabili burua, esan zion orduan, bera sabelpeko minengatik bihurritzen zen bitartean.

Imajinatzen zuen baino handiagoa, argitsuagoa eta anitzez jendetsuagoa iruditu zitzaion aireportua Natàliari. Era guztietako jendea zegoen, bazen mugimendua, eta argi-seinaleek maiz aski ematen zuten hegazkinen sarreraren eta irteeren berri. Natàlia, *tapis roulantak* maleta eta bi poltsa -«ekipaje arina»- noiz ekarriko zain zegoen bitartean, adigabe egon zen inguruko pertsonen begira. Zorionez, beste muturrean kokatua zen Puig koloniaren abantaila handiez mintzatu zitzaion gizona, «Europa guztian barrena espor-

tatzen dugu, kolonia katalan bat munduari bira eman diona». Bi irlandar mojak saihetsetik begira ari ziren, elkarren ondo-ondoan esperoan jarrita. Ezpainak su-gorritz margotuak zituen emakumea, berrogeita hamarreko urteetako maniki bat iduri, sarrerara ematen zuten beirateei begira zegoen, atseginez, «norbaiten bila ote dabil?». *New Statesman* irakurtzen zuen gizona, pipa errez eta Britainiar Institutuko irakasle baten itxuran, bere ordua eta aireportuko erlojuarena bat zetozela egiaztatzen ari zen. Azkenean, iritsi ziren ekipajeak, eta inurri-bidaiariak ilaran irten ziren kanporako ateetara, diziplinaz eta logurak jota -nor gehiago, nor gutxiago-. Natàlia Miralpeixek zalantza egin zuen lipar batez: Iberiaren autobusa har zezakeen, Plaça d'Espanyaraino, edo taxi bat. Libera esterlina batzuk sobera geratuak zitzaizkion, oso-oso gutxi, «Jimmy gizona, haren kapitala», eta Heathrowko aireportuan kanbiatu zituen. Zorionez, libera gero eta gorago zegoenez, kanbio ona egin zioten.

Besoa altxatu, eta taxi bat gerarazi zuen. Aireportuari azken begiratu bat emateko biratu zen. Miróren trazu magiko eta ustez haur-kutsukoak ezagutu zituelarik, irribarre egin zuen, «etxean nagon». Autora igo zen, «Gran Via eta Bruc arteko izkinara, mesedez». Atzerako ispilutik, taxilariaren begi gris ilunak ikusten zituen. Noizbehinka, begiratu egiten zioten begi haiek, «ez zekinat zer piura izanen dudan. Hain arraroa ote da ba ia berrogei urteko emakume batek bakarrik bidaiatzea? Nire blue jeansengatik ez ote den izanen...». Jimmyk, Natàlia baino zarpailago ibiltzen zen arren, Portobelloko merkatuan erosarazi zizkion galtza haiek. Zerbait polita baldin badaukan, ipurdia dun, esan zion, torero-ipurdia daukan, eta galtza hauek estutu egin ditzaken, zenbat eta gehiago hainbat hobeki. Zerua gris trinkoa zen, astuna, Bartzelonako udaberrian maiz izaten den bezalakoa. Irudi zuen hodeiak beherantz zetozela pixkanaka, denak multzo bakarrean, zuhaitzen ertzak ukitu arte. Buruko mina eta logura ematen zuen zeru bat zen. Euri-erauntsi eder bat beharko genuke, esan zuen taxilariak, begiak Natàliari

zuzendurik. Natàliak garondo motz uzkurtu bat besterik ez zion ikusten taxilariari, azal-tolestura batzuk bizkarraren goiko aldean metaturik, eta, ispiluan, berriz, justu bekokitik sudurraren gaineko alderainoko aurpegi-zatia. Paisaia zartatua zegoen: autoak hilerrietan, kolore gris eta marroikarak, motor triskatuak, Hiperreko gurdi metalikoak, hautsez zikinduriko hostoak, lur-ezponda eroriak, zuhaitz erdihilak, eta Bellvitgeko ermita, lerro-lerro jarritako bloke erraldoiek irentsia. Ermitako altzifreei begiratu zion Natàliak, hautsetan itoak denak, eta, orduan, burura etorri zitzaizkion aitarekin hara joaten zeneko egun horiak. Autoak ziztu bizian igarotzen ziren taxiaren ondo-ondotik, «esana zidatenan, bai: ikusiko dun nola diru gehiago dagoen». Natàliak leihoa igo zuen.

Baziren bi egun Puig Antich hil zutela, eta Natàliak bere artean pentsatu zuen, ez naun hain txoriburua, ez dinat espero urrin berezirik aurkitzerik. Jimmyren lagun berri Jennyk jarri zituen begi goibelez oroitu zen. «Agur esatera joan nindunan. Bezperako gauean, oilasko errea prestatu nienan, hain ateratzen zait goxoa. Oilaskoa hartzen dun, barrendik husteko eskatu, eta sartzen dizkion bi pusketa Maggi edo halakoren bat, baita goiko zatia moztutako limoi bat ere». Halaxe esplikatu zion Jennyri, plater hura asko gustatzen baitzitzaien Jimmyri. Oso ongi kozinatzen dun, Natàlia, esaten zion Jimmyk maiz-maiz, Bathen elkarrekin bizi zirelarik. «Aitzur ederra harrapatu ninan sangriarekin, gin gehiegi bota ote nion? Banekinan gero gibel-atatea izanen nuela. Ezin dinat hainbeste arroz jan, sabela haizatzen zaidan eta kosta egiten zaidan digeritzea. Bestalde, gureak baino puska koipetsuagoak ditun oilasko ingelesak. Sangriaren aurretik, hiru jerez-kopa irentsi nitinan, eta, gero, pubetan botila handi-handietan saltzen duten ardo beltz nazkagarri hori. Jimmyk, baina, sangria nahi zinan». Gure agurra izanen dun, *isn't it?*, nahiz Jenny hemen egon... Nahiz Jenny han egon, limoi bat barrenean sartutako oilasko errea prestatu zuen Natàliak. Mrs. Jenkins oso adeitsua izan zen oilaskoa erretzeko

bere labea utzita. *My dear, I see...* esan zion Mrs. Jenkins lodikoteak, irribarre guztiz ulerbera batekin. Ingelesek dena ulertzen dute, eta labea ere uzten dizute, agur-festa baterako baldin bada. Jimmy atsegina izan zen, eta, bizpahiru aldiz, erdi txantxetan erdi egiatan, musu eman zion. Jennyk atondu zuen mahaia, platerak aurretik berotuta, oilaskoa arroz hotzarekin jan behar ez izateko. Ospakizuna *very nice, indeed* izan zen, eta Natàliak egiaztatu zuen Jimmy franko aldatua zegoela, bai horixe. Ametsetako lanpostua lortua zuen bere jaioterrian, Liverpoolen, eta beti oroituko zuen Bath hiritxoan elkarrekin egindako egonaldia «nire bizitzako garairik zoragarrietako bat balitz bezala, zin egiten dinat», eta *I promise you* bat egin zuen, hain serioa eta hain kontzentratua Natàliak ezin izan baitzion irri egiteari utzi. Hori guztia Pump Roomen esan zion, *cream-tea* eta *sconeak* -Eskoziako opilak- jaten zituzten bitartean, sabai neoklasiko eta beirate zabaleko areto batean, antzinako bainu erromatarren aldera begira. Jimmyk *scone* baten gainean gurina eta konfitura hedatzen zituen bitartean, Natàliak esan zion zinez atsegina zela Jenny eta ez zegoela esan beharrik gehien komeni zitzaion emakumea zela beraren bizitzako etapa berri hartan. Hori argi zegoen. Hogarth peto-pettoa baitzen Jenny: matela arrosa argiak, kokots nabarmena, katutxo-begiak, ile beltzarana, eta sudur bat askotan gorritzen zitzaiona. Larruazal delikatua eta zuria, beti zartatzeko zorian. Ezagutu zuelarik, Natàliak pentsatu zuen bazuela meritua, beltzarana izateagatik, txikia izateagatik, begi bizi eta alaiak izateagatik eta, batez ere, arratoi-sudurtxo hura izateagatik, gorrixka jartzen baitzitzaion hotzarekin. Film ingeles bat erraza zen ezagutzen, eta ez bakarrik belardi izugarri zabalengatik eta adreiluzko etxeengatik, baizik eta baita emakume aktoreen sudurrengatik ere. *The Collector*-eko Samantha Eggar-en sudurra bezalako bat ez zen ahazten erraza: film hartan, Hampstead auzoaz maitemindu zen Natàlia. Beharrezkoa dun joatea?, galdetu zion Jimmyk, krema Eskoziako opilaren gainean zabalduaz batera. Baietz esan

zion Natàliak, eta gauza bera errepikatu zion Avon ibaiaren ertzean paseatzen ibili ziren batean -beltxarek negar eginarazi zioten Natàliari, oraindik ez daki zergatik-, hala uste baitzuen berak, joan beharra zuela, Bartzelonara itzuli beharra zuela. Orain joaten ez banaiz, ez nauk sekula joanen, ia hamabi urte zeramatzaat etxetik kanpo. Zergatik itzuliko haiz, Natàlia?, galdetu zion Jimmyk, eta berak erantzun, ez zekiat.

Natàlia, beraz, Jennyrenera joan zen agurraren ospakizunaren biharamunean. Oilaskoaren erretilua ahantzia zuen, eta Mrs. Jenkinsi itzuli beharra zion. Orduan, Jennyk esan zion, irratian entzun dinat espainiar anarkista bat exekutatu dutela, Putxantik uste dinat izena zuela. Natàliak gona gainera erortzen utzi zuen erretilua -pana beltzezko gona luze bat eresia zuen goiz hartan, azkena, bere buruari zin egin zionez-, eta Jennyren tximiniara begira zeuden besaulkietako baten besoan eseri zen. Jimmyk hasieran esan zion ez zela Jennyrenera joanen bizitzera, baina lorategi txiki bat zeukan, tentazio bat, zeren batzuetan itsasotik etorritako kaioren bat ere ikusten baitzen, erdi galduta; azken batean, lau aste bakarrik geratzen zitzaizkion Liverpoolera joateko, eta bazitekeen baietz, azkenean Jennyrekin ezkontzea. Jimmyren adin bera zeukan Jennyk, hogeita bost urte; normala zen ezkontzea. Natàliak denbora luzea eman zuen deus esan gabe. Jennyk, zertxobait izaturik, bere katutxo-begiak zabaldu zituen. Ez zekien zer egin, hain baitzegoen isilik Natàlia. *Oh, my dear! Did you know him?*, nork daki zer pasatu ote zitzaion burutik Jennyri Natàlia era hartan ikusita.

Baina Natàliak ezin zion deus esplikatuz; esan ziezaiokeen, badakin, Prousten madalenarena bezala dun, heriotza hau orain, justu hara itzuli behar dudanean... Izan ere, Grimauren atxiloketaren eta Asturiasko istiluen urte berean alde egin zuen Natàliak -Emiliok eta berak ahotsa marrantatu arte kantatua zuten *Asturias, patria querida* eta *Astúries, llibertat!* Bartzelonako Rambletan-. Hurrengo urtean exekutatu zuten Grimau, eta bere heriotzak faxismoaren azken bik-

tima izan behar zuela esan zuen... Eta, orain, Puig Antich hila zuten. Ba al dakin hire etxetik oso hurbil harrapatu zutela Puig Antich, gure auzoan? Imajina ezan, Eixample baketsu eta barean, esan zion Blanca Cortadesez gutun batean. Parisko eta Londresko hamabi urteko erbestealdi boluntarioan Natàliari Bartzelonatik nolabaiteko erregulartasunez idazten zion pertsona bakarra zen. Erromako egonaldia ez zuen erbestealditzat hartzen, zorientasun-garaiak izan baitziren, Sergiorekin, eta, gainera, ez zuen lanik egiteko beharrik ere izan, zeren eta Cuernavacako izeba Sofíak, Sergioren izebak, herentzia ederra utzia baitzion. Natàliak Sergiorekin Trasteverean igaro zituen egunak berdeak izan ziren, eta ez zituen sekula ahanziko Errenazimentuko jauregi zaharren arteko paseoak, arropa zabaldua nonahi, katuak etxe-hondarren artean bihurrikatzen, belarra Cinquecentoko leihoetan barneratzen, etxeen okre-koloreko margo histua. Maitasunezko eta melankoliazko garai bat izan zen, baina hura beste istorio bat zen... Esan bezala, beraz, Blancak zehatz-zehatz kontatu zion Puig Antichen eta gazte anarkisten istorio guztia, baina berak ez zuen uste azkenean hilko zutenik. Zurrumurrua bazebilen, indultua emanen ziotela azken orduan eta mundu guztia ari zela haren alde, are Montserrateko abadea eta Aita Santua ere. Eta, halaxe, astea joan eta astea etorri, ostiraletako Ministro Kontseilua iristen zen eta Francok eta haren gobernuak ez zuten *enteradorik* ematen. Kontua itzaltzen utziko diten, uste zuen Blancak, orain ezin diten hil, Merkatu Erkidean sartzeko zorian gauden eta, esaten dutenez. Hala eta guztiz ere, Blancaren aitak, kazetari ezaguna bera, pentsatzen zuen ezkertiarrek ziur zeudela ez zutela Puig Antich hilko eta eskuindarrak -ez ultrak, baizik eta zibilizatuak- beldur zirela exekutatu ote zuten. Ikusten dunanez, zioen Blancak, gure aitak oraindik pentsatzen din herrialde honetako ezkertiarrek xaloegiak direla. Hemengo giroa, esaten zuen, lasaitasunaren eta egozinezaren artekoa dun, baina mundu guztiak heltzen zion indultuari. Ezin diten hil, errepikatzen zuen bere azken gutunean.

Exekuzioaren ondoko igandean, eta Ingalaterratik alde egitekoa zen egunaren bezperan, Readingera joan zen Natàlia. Egun zoragarria zegoen. Giroa garbia zen, eta zelaiak berdatzen ari ziren, argitasunez blai. Bikote ingelesak Tamesis ibaiaren ertzean paseatzen ziren, eta beltzargak iheska zebiltzan, dotore. Haurrak eta txakurrak elkarri segika eta iraulka ari ziren zelaietako belarraren gainean, batzuk eta besteak ezin bereizi izateraino. Natàliak dena fotografiatu zuen: ibaia inguratzen zuten zelaiak, txalupak eta haurrak, txakurrak eta beltzargak, zubia, adreilu gorritzko etxeak eta Readingeko espetxea. Konderriko lantegirik zaharrenetako baten albo batean zegoen gotorlekua; espetxe viktoriar bat zen, ilun samarra, lau kantoietan dorre bana zuena, eta gaztelu baten atariaren antzeko sarrera erraldoi bat. Gotorleku haren barnean ibilia zen paseoan Oscar Wilderen heriotza-kondenatua, «atxiloek zeru diotsaten estalpetxo urdin» haren bila: «Baina sugedorriek horzkatu-erroak dituen urkabea beltzuritsua da; eta, heze ala lehor, fruitua ekar dezan, gizon bat hil behar da».¹ Natàliak, une hartan sentitzen zuena idatzi nahiko lukeela sumaturik, egun eder haren argitasuna biltzen zuen zoko bat bilatu, eta Puig Antichengan pentsatu zuen: hark ez zuen jada fruiturik ekarriko. Jimmy mirespen osoz mintzatzen zitzaion Oscar Wildez, «bizitza galtzen hasi zelarik» bizitza aurkitu zuen idazleaz. «Eta urkatzailearen bilurrak garrasi batez irato zuen otoitza entzun genuen. Eta gizon hari deiadar hain mingotsa eragin zion oinazea eta haren erredura gorriak eta odol-izerdiak inork ez zekizkien nik bezain ongi; bizi bat baino gehiago bizitzen duenak heriotza bat baino gehiago hil behar baititu».²

1 Oscar Wilde, «Reading Bahitegiko Leloa», itzultzailea: Bingen Ametzaga, in *Itsaso aurrean. Poemak eta poesia itzulpenak 1919-1968*, 2006, Susa. (Ohar guztiak itzultzailearenak dira.)

2 Idem.

Igande hartan, kiskaltzeraino berotzen zuen. Natàliak, bigarren eskuko Leika belar gainean utzi, eta atsedean hartu zuen. Estalpe urdinari begira zegoen, hain handia, baita galeperrei begira ere, zeinak zeru aldera eginik biraka baitzebiltzan zume negartien inguruan. Igandero bezala, *Sunday Times* erosia zuen. Wilsonen ondoan –beti bezala bere txakurra laztantzen eta beti bezala pipa-ekin– eta Jeremy Thorpe miragarri eta zurbil-zurbilaren ondoan –xistera buruan, gurasoekin Etonen paseatzen, hamabost urte zituela– zetorren Puig Antichen eta Heinz Chez poloniarren heriotzaren albistea. «*Two police killers garrotted in Spain*», azken hamaika urtean exekutaturiko lehen zibilak. Natàlia Kataluniatik partitu zelarik, hamahiru urte zituen Puig Antichek.

Esan, Natàlia, galdetu zuen Jennyk gau hartan, Henry gibraltarraren etxean elkartu zirelarik, zer da garrote-zigorra? Jimmyk, den-dena baitzekien, erantzun zuen: garrotea zera dun, burdinazko uhal bat, aulki bat eta makila bat, burdinazkoa hori ere. Biktima aulkira lotzen diton, eta aulkia makilari erantsita zegon. Uhala lepo inguruan jarri, eta borreroak, indarrez estutu, eta torloju bat biratzen din, haren bizkar-muina puskatu arte. Gaur bertan begiratu dinat *Britannican*, gehitu zuen. Eta lepoak «kraak» egiten din, esan zuen Henryk, Jennyri begira-begira, zer aurpegi jartzen zuen ikusteko. O, ixo, ez nazak ikaratu!, esan zuen Jennyk.

Natàlia Readingera joan zen, beraz, Ingalaterra utzi aurretik agur esan nahi baitzion Jimmyren osabari, Mr. Philip Hilli. Goiz iritsi zen haren etxera; behe-lainoa zegoen, eta geroago altxatuko zuen egunak. Mr. Hill bere lorategi txikiko belarra mozten ari zen, eta zeremonia handiz kendu zituen gomazko eskularru txikiak, Natàliari eskua emateko. Lehen aldia zen eskua ematen ziola. Hau ez da izanen azken agurra, ezta?, esan zion osaba Philipek, aurpegi linfatikoko gizon mozkotea bera. Mertzika gaztearen kolorekoa zuen azala, eta begi urtsu eta gardenak. Natàliak esan zuen, o, uste dut ezetz, eta ez zuen jakin gero zer gehiago esan, nahiz hainbeste

eman zion Mr. Hillek, munduan beste inork baino gehiago: lanbide bat irakatsi zion, argazkilaritza, bizimodua ateratzeko tresnak eman zizkion. Beste inork ez zion eman deus hain baliotsurik, ez Sergiok -nahiz maitatu zuen-, ez Jimmyk -nahiz zentzumenen mundua erakutsi zion-, ez Emiliok -nahiz begiak ireki zizkion-; osaba Philip onbera izan zen, deus gutxi zekien arren beraren herrialdeaz eta beraren iraganaz. Orain, Natàliak bazekien benetan independentea izan zitekeela eta aukeratu zitzaie bere bizitzako objektuak eta ingurumaria. Bestela, esaten zion bere buruari, zer egin behar nuen nire hogeita hamasei urteetan? Edo puta edo ezkondu. Garbi zegoen osaba Philipek ez zuela ideiarik ere nor zen Puig Antich -zergatik jakinen zuen ba, mundu honetako lanak eginak bazeuzkan eta zergak ordaintzen bazituen Elizabeth II.a erreginak bizi luzea izan zezan?-, baina gaingiroki aipatu zion nahasi samarrak aurkituko zuela herrialdea. Ez al zuen *Sunday Times* irakurri? Anarkista bat exekutatu dute, inor hiltzeko modu kanibala zinez, ezta? Egia esan, modu guztiak dira kanibalak, baina kontua da osaba Philip gizajoak aditzez bakarrik ezagutzen zuela Espainia, ez zitzaizkion herrialde beroak gustatzen, nik nahiago hotza, esaten zuen maiz. Kostarik esplikatu zion Natàliak Bartzelona ez zegoela Torremolinostik hurbil. Itsas argazkilaritzan espezializatu zen Mr. Hill, eta bizi erdia eman zuen bakailao-ontzietan nabigatzen, Ingalaterraren iparraldean eta Norvegiako kostaldean. Jimmyk osaba aurkeztu ziolarik, Natàliak esan zuen zoragarria behar zuela izan argazkilaritzaren kontu horrek -duela gutxi ikusia zuen *Blow Up*, Antonionirena- eta asko gustatuko litzaiokeela ikastea. Osaba Philipek itsas uraren pareko begiekin begiratu zion, eta esan zuen, has gaitezen lanean. Aspertuta nago, ez daukat lan askorik, eta erakutsiko dizut argazki bati zentzua ematen, irudi bati balioa ematen, ze, erraza ematen du, baina ez da.

Astelehen goizean Bathen zegoen oraindik, eta eguerdian jada taxi batean zihoan izeba Patríciaaren etxe aldera. Praça d'España-

ren ikuspegia, Pazko-opil hura erdian, inoiz baino zikinagoa eta itsusiagoa iruditu zitzaion. Bazitekeen egunarengatik izatea, ez baitzuen laguntzen. Auto- eta autobus-mordoilo bat pilatua zen plazaren erdian –etxetik alde egin zuelarik, oraindik baziren tranbiak-, eta taxilaria madarikazioka hasi zen. Montjuicerainoko etorbidearen bi aldeetan baziren publizitate-kartel erraldoi batzuk Maoren, Leninen eta Cheren erretratuak zituztenak: *¿Sabe usted por qué hicieron la revolución? Historia de las revoluciones... la respuesta (en fascículos coleccionables)*. Klaxonak entzuten ziren han-hemen, eta harrabotsa areagotuz zihoan, udaltzain bat alde batetik bestera zebilen bitartean, garondoa gorri-gorri eginda piper bat nola. «Karnaba marrantatu bat zirudin haren txilibituak». Taxilaria, dagoeneko ohiturik, pazientzia hartu, eta Natàliarekin solasean hasi zen hainbeste auto ez zegoen sasoiaz, eta zer irabazten dugu orain bidaia bakoitzeko? Pixarrak. Gutxienez deskontua egingen baligute gasolina ordaintzean. Murtziarra zen gizona, Albacetekoa, eta Natàliari, aspaldidanik ez baitzen katalanez mintzatzen, atsegina egin zitzaion taxilaria entzutea beraren hizkuntzan mintzatzen, katalan *apitxat*³ hartan. Begira, ez dakit denbora asko eman duzun kanpoan... Hamabi urte? Ene! Orduan bai, aldatua aurkituko duzu hau dena. Ni kanoi-bazka izan nintzen, badakizu... Zenbat urte uste duzu ditudala? Berrogeita hamar edo? Ba berrogeita bi dauzkat, eta nahi dudan gauza bakarra da nire seme-alabek gorriak ez ikustea, nik bezala. Herrian, patata eramaten zuten. Haiek, nork bestela? Ba hori, irabazi zutenek... Taxilariaren begiak jada ez zitzaizkion iruditzen hain metalikoak, baizik eta zero lanbrotsuaren tankerakoak.

Telegrama bat bidalia zion izeba Patríciami, «astelenean iritsiko naiz. Ez ikaratu, zure etxean geratuko naiz niretzako pisu bat

3 *Apitxat*: katalanaren aldaera, kontsonante txistukari ahostunak ahoskabetzeko joera duena. Valentziako erdialdeko hiztunek erabiltzen dute, eta baita orobat gaztelaniaren eragina duten hiztunek ere.

aurkitu arte». Ez zen ausartzen esatera sosik gabe zegoela, baina amabitxia zuen Patrícia, eta hark beti esaten zion bera zuela kuttunena, nahiz txikitan jenio txarra izan eta askotan amorrarazi. Izeba Patrícia askotan esaten zuen halako nahasketa bat zela Natàlia, bazuela beraren ahizpa Paquitatik –mari-purtzil bat bezala hil zen, nahiz benetan xarmanta izan, ai Jauna: egunkari-paperetan bilduta aurkitu zuten, Paquita, hain aberatsa bera, baina senarra zenaren ondasun guztiak xahutu zituen alprojekin; toreroak eta bailaorrak gutzizatzen zituen, eta, are gehiago, esaten zuten koinatuarekin nahasirik zebilela, dominikar gaztea bera-, eta bazuela Katitik ere, Kati eroxka, 1939an bere buruaz beste egina bera, eta Jainkoak barka dezala. Natàlia auskalo nongo lurretan barna zebilen artean, eta zergatik ez zuen idazten?, Patrícia gaixoa alargun geratu zen, Esteve Miràngels poetaren alargun –izeba Sixtak beti esaten zuen Esteveri ez zegokiola halako abizenik, aingeruei begiratu beharrean beste gauza batzuei begira egotea gustatzen zitzaioela...-, eta Judit ere hila zen, apoplexia-atake batez, 1958an. Garun-funtzioak etenda bizi izan zen Judit urte batzuetan, harik eta azkenean hemorragia batek eraman zuen arte. Natàliaren aita, bakarrik geratu zenez, pisu alokatua utzi eta Lluísekin eta Silviarekin bizitzera joan zen. Halaxe azaldu zion Sílvial gutun batean. Kanpoan egon zen hamabi urteetan, Natàliak pare bat aldiz besterik ez zituen ikusi Sílvial eta Lluís. Lehena, Parisen, Lluísen bidaia zalu haietako batean –Sílvial ere berarekin eraman zuen-; bigarrena, Londresen, Aste Santu batean. Natàlia eta Sílvial Londresen barna paseatzen ibili ziren, dendaz denda eta saltokiz saltoki. Sílvial, beti bezala, bere bizitza kontatu zion Natàliari, eta asko aspertu zen Tate Galleryn. Badakin nik ez dudala fitsik ere ulertzen pinturaz, zer nahi dun egitea? Janariaz hizketan bukatu zuten. Lluís Londresen egona zen ezkutuan, aste-buru batean, Bartzelonako Picasso museoan ezagutu zuen emakume amerikar batekin. Bidaia hari buruz, baina, ez Natàliak ez Sílvial ez zekiten deus. Natàliak, beraz, noizbehinkako bidaia haien bitartez

eta Sílvialak eta Patríciak gaztelaniaz idazten zizkioten gutunei esker jaso zuen familiaren berri. Natàliak sekula ez zion idatzi aitari, Joan Miralpeixi, eta hark ez zion alabari barkatu Juditen hiletarako ere ez etortzea.

Dena den, eta nahiz eta hamabi urtean oso gutxitan pentsatu zuen horretan, taxiak izeba Patríciaren atalondoaren aurrean utzi zuelarik, Gran Vian, Bruc eta Girona artean, hutsune baten gisako zerbait sentitu zuen Natàliak urdailean. Lehen bezalaxe zegoen dena, marmolezko eskailera berbera, ezkerrentz egiten zuen baranda, globo bat sostengatzen zuen brontzezko figura modernista, atezainaren kaiola, sabai kromatua, urre-koloreko eskutoki distiratsuak, beira esmerilatuak, botetako lohia garbitzeko burdina landuzko pieza -Bartzelonako jaun-andreek karrika asfaltatuak ametsetan ere ikusten ez zituztenekoa-, granada-koloreko alfombra luze estua alboetatik zertxobait tarrataturik... Dena zegoen bere tokian, objektu pulituak, eskailerako isiltasuna, usainak, marmol distiratsua -nahiz eskailera-mailak koskatu samarrak zeuden-. Haur bat atera zen atezainaren kaiolatik, lasterka, ile luzekoa eta indiar-luma batzuk zeuzkana kopeta inguruan. Eskolako mantala zeraman jantzita, marratxo urdinekoa, eta gerriko ilunago bat. «Constànciarena ote da?». Constànciak hamar urte zituen Natàliak alde egin zuenean.

Solairu nagusiko lehen atea urre-koloreko eskutokiak zeuzkan, arras distiratsuak, baita behatxulo bat eta Bihotz Santua ere. Dena zegoen Netolez behin eta berriz garbitua. Natàliak irribarre egin zuen. Izeba Patrícia, hain garbia beti. Txirrina jo zuen; ezkilatxo bat jarria zuten aurrekoaren partez, eta txirrin-hots kurtsi samarra egiten zuen. Lehenbizi, kate bat askatzen entzun zuen, kisketa bat altxatzen gero, txatar-hotsa, eta baten bat behatxulotik begira, nor da?, baina Natàliak ez zuen denborarik izan erantzuteko, zeren, ohartzera, atea irekita zegoen, eta norbaitek indarrez estutzen zuela sentitu zuen, zergatik ez hidan esan zer ordutan iritsiko hintzen?